



Txokoetako gaztetxoak Bizkaia aldera joan ziren eta Gautegez-Arteagan gaua pasa zuten.

## Monotoniaren txertoa

Ttakunek antolatzen dituen Txokoak eta kanpaldiak bihurtu dira udako txertoa

Gero eta haur eta gazte gehiagok hartzen dute parte Ttakunek udaran antolatzen dituen Udako Txoko eta kanpaldietan. Euskara sustatzea dute helburu nagusia kanpaldi eta txokoek, baina funtzio hezitzaile honetan dibertsioa da nagusi, "hezi egin behar dira haurrak, baina modu erakargarri batean baldin bada hobe" diote arduradunek. Aurtengoak nola joan diren ikusteko, jo aldizkari honetako orri zentraletara. •



### Olioia biltzeko edukiontziak jarri dituzte

Sukaldean erabilitako olioia jasotzeko bederatzi ontzi laranja banatu dira Lasarte-Oriako toki ezberdinetan. Asteazketan merkatuko postuan ere jasoko da olioia, zerbitzu hau ez da kenduko. Plastikozko ontzietan ondo itxita bota behar da olioia. /8

### Ez zuen txapela eraman

Jende ugari bildu zen ostira-lean Zarautzen ospatu zen Lizardi sariaren finalean. Bertsolari Gazteen XXXIV. Txapelketaren honetan ere Ane Labaka gazte lasarteoriatarra bertan izan zen, txapela lehiatzen. Saioan zehar ondo aritu bazen ere, ezin izan zuen eraman.

Txapela etxera eraman zuena Aitzol Barandiaran ataundarra izan zen, eta bigarrena Jone Uria algortarra. Bertso onenaren saria ere Aitzolentzat izan zen, hamarreko txikian kantatutako bigarren bertsoarengatik. •



Saioan zehar ondo aritu bazen ere, ezin izan zuen Ane Labakak txapela eskuratu Zarautzen.

### KIROLA /2

**Chourraut zazpigarren Europako txapelketan**

### GIZARTEA /6

**Buruntzaldeko Industrialdeko lanak aurrera doaz Michelingo eremuan**

### GIZARTEA /6

**Goiegi Ibarreko Etxebizitza Babestuetarako zerrendak ikusgai**



- Euskara agiriak
- Hizkuntza profilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

- EGA
- Autoikaskuntza

Geltoki kalea 17, behea  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372863  
lasarte@aek.org



# Chourraut, zazpigarren, Europako txapelketan

Abuztuaren 13tik 15era, Bratislavako kanalean Europako Slalom mailako txapelketa lehiatu zen eta Maialen Chourraut herritarrek zazpigarren postua lortu zuen.

Maialenek ez zuen denborarik izan kanalarik egokitzeko eta gainera, piragua aldatu berri du. Bere orrialdean dioen bezala, "txapelketa hau erronkaz beteta zegoen niretzat. Piragua duela bi aste aldatu dut, ordu dezente egin ditugu Taccenen entrenatzen eta Bratislavan ordu eta erdi bakarrik izan dugu. Hasieratik nekien zail izango zela lehiaketa ona egitea."

Gauzak honela, sailkapeneko lasterketan hamargarren postua lortu zuen eta final erdian, laugarren denbora egin zuen.

Tamalez, finalean kanalarren bigarren zatian akats dezente egin eta 50 puntuko zigorra jarri zioten. Egoera horrek zazpigarren postua



Europako 7. postua lortu zuen Maialenek. Egun hauetan, mundiala du jokoan.

eman zion palista lasarteoriarrari.

## Mundialerako prest

Bihar hasten da Mundiala Esloveniako Tacceneko kanalean.

Europako txapelketa baino lehen eta txapelketaz gerostik Maialen Chourraut bertan

egon da kanala ezagutu eta mundialerako prestatzen.

Bere webgunean azaltzen duenez, ilusioz hartu du prestaketa eta mundialean bere esku dagoen guztia emango du. Iaz zilarrezko domina eskuratu zuen txapelketa honetan, ea aurten ere lortzen duen. •

# Denboraldia asteburuan hasiko dute Ostadarreko futbol taldeek

Asteburu honetan, irailak 11 eta 12an, Gipuzkoako hainbat futbol zelaietan 2010-2011 denboraldiari hasiera emango zaio.

Eta Ostadar K.F.ko hiru taldek, Erregional Goren, Jubenilen eta Kadeteen Ohorezko taldeek denboraldi hasierako partida jokatu dute.

Erregionalak eta kadeteek kanpoan hasiko dute denboraldia. Joxean Beldarrainen mutilek Amara-Berri taldeari egin beharko diote aurre eta herriko kadeteen taldeak, berriz, Irungo Touring taldeari.

Jubenilei dagokionez, Lasarte-Oriako zaleen laguntza izango dute lehen partida honetan, etxean jokatzeko baitute Kotskas-Mariaren Bihotza taldearen aurka.

## Aurrendenboraldia

Aurrendenboraldiari dagokionez, Erregional Goreneko taldeak Idiazabal eta Trintxerperen aur-

kako partidak jokatu zituen eta hirugarren postua eskuratu zuen Euskalduna taldeak antolatutako XXXVI. Larramendi Torneoan.

Txapelketan Euskalduna eta Tolosa taldeen aurka lehiatu zen Joxean Beldarrainen taldea eta Tolosako taldea, Ohorezko Erregionalako taldea, atera zen garaile.

Lasarte-Oriako taldeak Euskaldunaren aurka husnako berdinketa lortu zuen; Tolosaren aurka, ordea, 2 eta 0 galdu zuen.

## Beste taldeak

Ostadarreko gainontzeko taldeak eta Texas-Lasartearra kirol elkarteok prestaketarekin jarraituko dute. Izan ere, hurrengo asteetan emango baitute hasiera denboraldiari, hala nola, Ostadarreko infantil ohorezko taldeak eta infantil txikiak irailaren 19ko asteburuan. •

## Herriko areto-futbol txapelketan izena emateko epea zabalik da

Ostadar K.F.-k antolatzen duen XXVIII. Areto-Futbol Txapelketa urriko lehen asteburuan hasiko da.

Horregatik, kirol elkarteak izena-emateko epea jada irekita dagoela jakin arazten du.

## Izena ematea

Txapelketan parte hartu nahi duten taldeak Ostadarreko bulegora, Geltoki kalea 25 zenbakira hurbildu behar dira dagokien dokumentazioa jaso edo uzteko.

Irailaren 17ra arte izango da zabalik epea eta antolatzaileek adierazi dutenez, epez kanpo ez da talderik onartuko. •

## Intzako pilotariak lanean

Irailaren 1ean, Intza K.E.ko jubencil eta senior mailako pilota entrenamenduak hasi ziren, hilaren 19an txapelketa probintzialari hasiera emango baitiote.

Infantil eta kadeteak hilaren 2an hasi ziren eta irailaren 16an, ostegunetan, alebin eta benjaminen txanda izango da Villa Mirentxun.

## Entrenamendu egunak

Intzako arduradunek azaldu digutenez, mailaren arabera, entrenamendua ordutegi eta leku desberdinetan egingo da.

Honela, jubencil eta senior mailako pilotariak asteazkenean izango dute entrenamendua, Michelingo frontoian, 22:00etatik 22:00etan. Infantil eta kadeteak, berriz, astearte eta ostegunetan, Michelingo

frontoian 18:30etik 20:30era.

## Pilota eskola

Pilota eskolari dagokionez, hau da, alebin eta benjamin mailako haurrek astearte eta ostegunetan 18:30etik 20:30era izango dute entrenamendua Villa Mirentxun.

Hala ere, arduradunek jakitera eman dutenez, Loidi-Barreneko lanak amaitzean, entrenamenduak frontoi berrian izan daitezke saiatuko dira.

Intza K.E.ko arduradunek Lasarte-Oriako haur, gazte edo hauen gurasoak Michelingo frontoira hurbildu daitezkeen animatzen dituzte, hilaren 16tik aurrera, izena eman, edozein galdera egin, entrenatzaileak ezagutu edo ikasturtean zehar egingo diren ekintzen berri izateko. •



## Tourreko Porrako sariak banatu ziren.

Ostiralean, Ostadar K.F.-k Tourreko Porrako saribanaketa egin zuen Ainhoa tabernan. Ordainsariak, zein urdaiazpikoak banatu ziren bertara hurbildu ziren sarituen artean. Honetaz gain, Ostadarreko arduradunak Ainhoa tabernako jabeari, puntu gehien lortutako tabernaren saria eman zion, bi pertsonentzako afora Aratz Erregetan. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Ateak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Guadalupeko Amaren eguneko ospakizunak

Asteazkenean, irailaren 8an, Guadalupeko Amaren eguna da. Eta Hondarribin jaiak izateaz gain, Extremadurako Autonomi Erkidegoko zaindariaren eguna ere ospatzen da. Ugari dira jaioterriatik urrun bizi diren extremadurarrak eta gure herrian egun handi hori ospatzeko lekua izango dute, asteburuan, Uzturre plazan dagoen Extremadurako etxeari esker.

## Ikurrinaren igoera

Ostiralean, irailaren 10ean gaueko 21:00etan, Guadalupeko egunaren ospakizunei hasiera emateko Ikurrinaren igoera egingo da Extremadurako Autonomi Erkidegoko gorazarreaz lagundurik.

Ordu erdi beranduago, herri afaria egongo da elkarrean. Hurbiltzen direnek Extremadurako kaldereta izango dute afari.

## Ekitaldi ugari larunbatean

Larunbata goizean, haurrek marrazki lehiaketa eta haur jolasak izango dituzte.

Bazkalostean, 15:30ean, mus zaleentzako parada paregabea. 18 urte gorakoek soilik izango dute mus txapelketan parte hartzeko aukera.

"Flor de Tomillo" Ermuko Extremadurako Kultur Taldearen dantza eta koruak entzuteko aukera egongo da, 18:00etatik aurrera.

Afari orduan, 21:30ean, herri agintariekin batera, afari



lazio ospakizunetan giro ederra bizi zen Extremadura etxean.

gozo batez gozatuko dute bazkide eta lagunak.

Eta jandako guztia jaisteko lbaie Berriak taldearekin dantzaldia egongo da jarraian. Gogoratu parte hartzen duzuenok ohiko dantza lehiaketako partaide bihurtuko zarela.

## Ospakizunak borobiltzen

Igandean, goizeko 11:30ean, Zumaburuko Arantzazuko Ama Birjinaren elizan, Guadalupeko Amaren omenezko meza ospatuko da. Errenteriako "Ecos de Etxemadura" Monfragüe Extremadurako Etxeko taldearen koruak lagundurik.

Eguerdi aldera, Semblante Andaluz etxeko "Zambra" talde flamenkoak emanaldia eskainiko du Uzturre plazan.

Arratsaldean, 16:30ean, 18 urteko gorakoentzat, tute txapelketa irekia egongo da elkarrean.

Ostean, 18:00etan, emakumeek boloetan eta gizonen toka txapelketan lehiatzeko aukera izango dute.

Eta, urtero legez, lehiaketako sari banaketa eta ikurrinaren jaitsierarekin emango zaie amaiera ospakizunei.

## Animatu eta gozatu

Extremadurak guztiei bereziki, eta oro har, Lasarte-Oriako biztanleriari ospakizun guzti hauetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi die Extremadura Etxeko lehendakaria den Fortunato Muñoz Cibrianek. •

## BURUNZPE GURASO ELKARTEA

### Liburu banaketa Sasoeta-Zumaburur

Ikasturte hasiera gainean dugu eta horregatik, Sasoeta-Zumaburu herri ikastetxeko Burunzpe Guraso Elkarteak liburuen banaketa egingo du bihar eta etzi, irailaren 7 eta 8an, Sasoetako eraikuntzan.

Bihar, irailaren 7an, arratsaldean egingo dute banaketa 16:00etatik 17:30etara eta etzi berriz, eguerdian 12:30etik 13:30era eta arratsaldean, 16:00etatik 17:30etara.

Guraso Elkarteak jakin arazten du, liburuak jasotzeko beharrezkoa izango dela, liburuen ordaintzaren ordain agiria eta guraso elkarteak kuotaren diru-sartzearen ordain agiria aurkeztea. •

## EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOIA

### Ikastaroetan izena emateko azken astea

Irailaren 1ean, oporren etenaldiaren ostean, ireki zituen berriro ere ateak Emakumeen Zentro Zibikoak eta egun horretan 2010-2011 ikasturteko ikastaroetan izena emateko epea ireki zen.

Hainbat ikastaro eta ekinntza eskaintzen ditu Zentro Zibikoak Lasarte-Oriako emakumeentzat, Batuka, esku lanak, frantsesa, mantentze gimnasia edo tai-chi eta ikasturteko lehenengo hiru hilabetearen inauterietako konpartsa prestatzea.

Interesatuak daudenak ostiralera arte, irailaren 10era arte dute ikastaroetako informazioa eskatu eta inskripzioa egiteko goizez, 9:30etik 13:30era eta arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara. •

## STOCK ETA SALDOEN III. AZOKA

### Saltokiek lekua dute azokan

Aterpea elkarrekin eta Lasarte-Oriako Udalak gogoratu nahi die herriko saltokiei lekua libre dagoela III. Stock eta Saldoen Ferian parte hartzeko.

Azoka berezi hau irailaren 25 eta 26an egingo da, Michelin Kirol guneko pilotalekuan. Larunbatean, hilaren 25ean, 10:00etatik 20:00etara egongo da irekia, eta igandean 20:00etan itxiko da.

Bertan bere produktua saldu nahi duenak, Aterpearekin jarri behar du kontaktuan, 637 955 030 eta 687 845 623 telefonozenbaki bitartez, edo itziariruzun@hotmail.com helbidera posta elektronikoki bat bidaliz. •

## UDALTZAINAK

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta eta Shiroko markako motozikleta kaskoa.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilaibeteko epean jaso behar dituzte. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara. •

## ONCEKO SARIA

### 125.000 euroko saria Lasarte-Oriara

Abuztuaren 28ko ONCEko zozketak 125.000 euroko saria ekarri zuen Lasarte-Oriara. Hain zuzen ere, Eladino Ferreirak, Kale Nagusiko kiosko arduradunak saldu zituen bost boleto izan ziren zortekoak, bakoitzak 25.000 euroko sariarekin. •

## KOBREZKO KABLEA

### 48.000 euro baino gehiagoko galera argiteriko kablearen lapurretan

Lasarte-Oriako herrian, duela aste batzuk, argiteri kable lapurreta ugari egin ziren mugimendu gutxi dauden eremuetan, hain zuzen ere, Arranbide-Tribuna pasean, Zumaburu auzoko ibai aldean eta Azkorte bidean. Honen ondorioz, Udalak 48.000 euro baino gehiagoko galera izan duela jakitera eman du.

Era berean, Zumaburuko ibai ondoko parkean, ureztaketako 100 metro kable ostu zituztela ere aditzera eman du.

Gauzak honela, lapurreta gehiago ekidite aldera, Udalak eremu batzuetako zaintza zorrotzu du. •

# Trafikoan aldaketak Zumaburu eta Basaundi aldean interzeptorearen lanak direla eta

Iparraldeko Ur Konfederakuntzak Lasarte-Oria eta Usurbilgo saneamenduko interzeptoreko lanen hurrengo faseari hasiera eman zion abuztuaren erdialdean.

Honetan, Zumaburu auzoko Zumaburu kaleko bidegurutzetik Ola kaleko 10. zenbakiraino egongo da itxia, irailaren 30era arte.

Lanek eragin dituzten zirkulazio aldaketei dagokionez, Zumaburu kalea jatorriz zuen zentzura bueltatu da, Ola kaleatik sartuta eta Zumaburuko elizatik aterata.

Erribera kaleko atzeko bidea, ibai ondoan, berriz, bi zentzutakoa da bertakoentzat, eta asteazkenetako merkaturako sarrera-irteera ere bada.

Hori dela eta, bide honetan aparkatzea debekatuta dago lanak amaitu arte. Alter-



Intertzeptoreko lanek Ola kaleko beste eremu batean izan dute jarraipena.

natiba moduan, Ganbo eta Andapa kaleak prestatu dira aparkaleku bezala.

## Basaundi bailara

Era berean, Basaundi bailaran egiten ari diren lanak direla eta, abuztuaren 30etik iraila-

ren 17ra arte, Zirkuitu ibilidoko errepidean zentzu bat itxi da eta zirkulazioa semaforoen bidez zuzendu da.

Gauzak honela, Alkatetzak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

# Udaran monotoniarentzat txertoa; Txokoak eta kanpaldiak

■ Gero eta haur eta gazte gehiagok hartzen dute parte Udako Txoko eta Kanpaldietan  
 ■ Dibertsioa eta heziketa kontrajarritako faktoreak ez direla erakusten du udako eskaintzak



Gustura ibili ziren DBH1 eta DBH2ko Urdaibaitik pasean



Gorostapalan ederki pasa zuten DBH3 eta DBH4 gaztekoak. Beroari aurre eginez, uretan murgilduz.



Hainbat irteera izan dituzte. Argazkian, Gasteizeko Gamarrako igertelua.

Aspertzeko astirik gabe, horrela ibili dira herriko gaztekoak aurtengo udan. Jolasak, irteerak... denetarik ikasteko eta ondo pasatzeko helburuarekin. Dibertsioa ez da falta izan aurtengo txoko eta kanpaldietan parte hartu dutenentzat.

**Ixaxo MORENO**

**E**uskara sustatzea dute helburu nagusia kanpaldi eta txokoek, baina funtzio hezitzaile honetan dibertsioa da nagusi, "hezi egin behar dira haurrak, baina modu erakargarri batean baldin bada hobe." Banakoen arteko elkar

**ekintzek daukate garrantzia hizkuntza baten erabileran eta hori da Txakun kultur elkar- teak sustatzen duen aisialdi-ko ekintzetan nagusi.**

Urtean zehar izaten den monotoniaren kontrako txer- toa bilakatu dira Txokoak eta Kanpaldiak, mila abentura eta istorio bizi baitituzte haur eta gazteek. Ekintza hauen inguru- an, gainera, herri mailan mugimendua sortzen da. Haurrak, begiraleak, guraso- ak, herriko dendak eta herritar- ren inplikazioa handia da, baita beste udalena ere.

### Udaleku irekiak

Antolatzaileek azaldu digute- nez, parte hartutako umeen kopurua igo egin da Udako txokoetan, "guztira 477 ume ibili dira, 411 uztailean eta 66 abuztuan."

Hiru programazio ezber- din egon dira. Txikiak Pritt Sorginaren eskutik istorio eta jai ezberdinak ezagutu zituz- ten, baita tailerretan eta jola- setan primera igaro ere.

Ertainen kasuan, kulturar- tekotasuna izan da gaia. 6

kultura desberdin ezagutu dituzte eta 30 egunetan munda- rari bira eman diote. Hone- taz gain, kirola eta irteerak egiteko astia ere izan dute.

Zaharrenean kasuan, Euskal Herrian, Euskal Kulturari eta koadrilan oinarritu dira.

Hego Euskal Herriko hain- bat txoko bisitatu dituzte, Bizkaia aldean gaua igaro zuten, esate baterako. Eta, gainera, Zubietan eta Urnieta- ko lagunak egiteko aukera izan dute irteera hauetan.

### Udaleku itxiak

Uztailaren lehenengo hama- bostaldian, Mendigorriari egon da LH3 eta LH6 bitar- teko gazteko talde bat eta asko gozatu zuten bertako progra- mazioekin.

LH3 eta LH4 mailakoek Gou zientzialariak eta bere denbora makinak proposatu- tako programa jarraitu dute. Hauei esker, garai eta aro ezberdinak jolas eta ekintzen bitartez ezagutzeko aukera izan dute.

*Eronka Extreme* programa- rekin gozatu dute udalekue- tan, LH5 eta LH6koak.

Egunero eronka bat zuten gaintzeko, lau egunetako irteera barne. Eta amaieran, beharke giltzak lortuz gero, saria zuten.

### Kanpaldiak

Harremanak sendotzeko

aukera paregabea benetan kanpaldiak izan dira.

DBH1 eta DBH2ko 33 gazteekin Lasarte-Oriatik Bermeora egin dute kanpaldi ibil- taria.

Aurreko urtean Bermeo- Castro egin zuten, aurtengo kanpaldiarekin bai Gipuzkoa bai Bizkaia ezagutu dutela esan daiteke. Durangoko Ber- baro elkarteak gaztekoekin elkar banatu dute esperientzia aurten eta besteak beste, sur- fean aritzeko aukera izan zuten.

Aurten, DBH-3 eta DBH-4 mailakoek kanpaldia euren gustuen arabera antolatu eta iparraldea ezagutu dute.

20 gazteko Euskal Herria Zuzenean festibaleko zuzene- ko kontzertuek gain, lana ere egin behar izan zuten gaztekoak; adibidez barran edo garbiketari.

Honetaz gain, eta kanpaldi formatua mantentzeko, 3-4 etapa prestatu zituzten antola- tzaileak, kanpinetan ostatu hartu eta Elizondan amaitu.

### Euskaraz hezi, euskaraz bizi

Artengo balorazioa, beraz, positibotzat jo dute antola- kuntzatik, "haur eta gazteen artean sortzen den harreman sarea euskaraz da, eta hori da herrian bultzatu nahi dena."

### Begiraleak

Azpimarratzekoa da herriko gaztekoen aisialdia landu eta prestatzen dutenak herriko gazteak direla, "orotara 64 begirale izan dira, 604 gazte- txorentzat."

Antolatutzak bai txoko, baita kanpaldietan ere begira- leek izan duten inplikazioa nabarmendu dute, "euren denbora aisiari eskaintzen diote eta goxo handiz egiten dute gainera."

### Segurako aterpetxea

Honetaz gain, aurten Aldun- diak kudeatzen duen Segura- ko Aterpetxearen arduraduna izan dugu Ttakuneko Aisialdi- ko Saila. Uztailean Tetik abuztuaren 14a arte, 7 egune- ko 6 txanda antolatu dira eta txanda bakoitzean 5 begirale egon dira.

Honela, antolatzaileek Ttakunek eta Udalak antolatu- tako udaleku itxi, ireki eta kanpaldietan egoteaz aparte, beste aukera bat eskaintzen diete begiraleei.

### Ludoteka

Ikastertea hastear dagoela ekintza ugari prestatzen ari dira Ludotekarako. Horren artean sortzen den harreman sarea euskaraz da, eta hori da herrian bultzatu nahi dena."



### Ikasle izatetik, begirale izatera.

Urte asko darama Ttakun Elkarteak Aisialdi Sailak gure herrian euskararen alde eta euskara bultzatzeko helburuarekin. Gauzak asko aldatu dira hastapen urte horietatik. Ume ugari dira jada aisialdi programa honetan parte hartu dutenak. Txiki-txikitik hasi, heziketa prozesu batean murgildu eta azkenean, egun eurak berak Lasarte-Orian dauden gazteekin heziketako begirale bihurtu direnak. Dauden eta etorriko diren belaunaldien heziketa prozesua bideratu, landu eta bultzatzen dute. Goiko argazkian aspaldi aisialdi programa honetan hasitako umeak ikusi ditzakegu, eta behoko argazkian aldiz, uda honetan begirale moduan aritu diren gazte lasarteotarrak. Norbait ezagutu duzu? Asko aldatu da!



Txikiak Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Zentroan ederki gozatu zuten.



Txokoetako gaztekoak Bizkaia aldera joan ziren eta Gautegiz -Arteagan gaua igaro zuten.

# ANAIAK

## JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

# Buruntzaldeko Industrialdeko lanak aurrera doaz Michelingo eremuan

Michelin enpresak ibai ondoko biltoki eta ur depositoa erautsi eta Geltoki kalean zeuden pasabidea eta ur hodiak kendu ditu. Ereku horretan industria gune berria eraikiko dute.



Michelin enpresak Geltoki kaleko pasabidea kendu zuen abuztuaren hasieran.



Ibai eremua egokitzeko, ur depositoa eta biltokiak erausten ari da orain enpresa frantziarra.

Lasarte-Orian Buruntzaldeko Industrialdeko guneetako bat eraikitzeko lehenengo pausak ematen ari dira Michelin enpresak ibai ondoan duen eremuan.

Buruntzaldeko Industrialdeko proiektu nagusietako bat da hau, Hernaniko guneare-

kin batera, gure eremuan industria sustatu eta lanpostuak sortzeko.

Helburu horri jarraikiz, Michelin fundazioak eta Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Udalen arteko hitzarmenaren bitartez, enpresa frantziarrak Oria ibaiaren ondoko eremua

eskaini du industria gune berria bertan kokatzeko.

Era honetara, Buruntzaldeko Industrialdearen eta Michelin fundazioaren arteko elkarlana egongo da bertan.

## Egokitze lanak

Abuztu hasieran hasi zituen

Michelin enpresak eremuko egokitze lan desberdinak.

Lehenik, abuztuaren 8an, Michelin enpresako langileek Goitu, Alonso y LKS enpresakoekin batera, Geltoki Kalea gainetik zeharkatzen zuten pasabidea eta ur hodiak kendu zituzten.

1967. urtean eraikitako pasabideak ekoizpen eremua eta biltokia batzen zituen. Bertatik milaka pneumatiko igaro dira biltokirako bidean.

Bestetik, ibai ondoko ur depositoa eta hainbat biltoki erautsi ditu enpresak egun hauetan. •

## Goiegi Ibarreko Etxebizitza Babestuetaarako zerrendak ikusgai Udaletxean

Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak Goiegi Ibarreko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eskatzaileen behin behineko onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratu ditu.

Lista horiek Udaletxeko Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko sailean dagoen iragarki-taulan kontsultatu daitezke.

### Erreklamazioa

Behin behineko zerrenda ikusgai egongo da hamabost eguneko epean, herritarrek aztertu eta erreklamazioak formulatu ahal dituzten. Epe hori hurrengo irailaren 17an amaituko da.

Parte-hartzaileen behin betiko zerrendetan onartua izateak, ez du esan nahi ezarritako baldintzak eta eskakizunak betetzen direnik, horiek, behin behineko adjudikatariorik gertatuz gero, kontratuak sinatu aurretik egiaztatuko beharko dira.



76 etxebizitza zozketatuko dira Goiegiko Ibarrean eta lanak aurreratuak daude.

### Jarraipena webgunean

Zerrenda hori bera Udalaren webgunean, [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) orrialdean ikusi ahal izango da.

Era berean, hemendik aurrera, udalak jakin arazten duenez, espedienteak kontsultatzeko biderik errazena eta

bizkorrena webgunea izango da.

Bertan *BPE-Babes publikoko etxebizitzak* atalera jo eta *Kontsulta ezazu zure egoera* loturan NAN zenbakia eta bakoitzari dagokion eskaeran kode-zenbakia jarri beharko dira espedientearen sartzeko. •

### IGERIKETA

## Buruntzaldea IKTK gaur du lehenengo entrenamendua

Buruntzaldeko Igeriketa Kirol taldeko neska-mutilek gaur hasten dituzte 2010-2011 denboraldia prestatzeko entrenamenduak Udak Kiroldegiko igerilekuan.

Arduradunek jakin arazi digutenez, denboraldi hasieran zehar taldean sartzeko aukera badago oraindik, beraz inor interesaturik egonez gero, haiekin harremanetan jartzea besterik ez du. Izan ere, haur bakoitzaren adinaren arabera dagozkion ordutegiak eta entrenamendu egunak ditu taldeak.

Informazioa nahi duenak 696 506 673 telefono zenbakira deitu, Ruben, edo irailaren zehar 18:00etatik 19:30era kiroldegian Borjagatik galdegin dezala. •

### N-1 ZARATA

## Pantaila akustiko gehiago jartzeko asmoa agertu du Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Lasarte-Oria zeharkatzen duen N-1 errepidean pantaila akustiko gehiago jartzeko asmoa agertu du, Loidi kaleko eremuan, hain zuzen ere.

Donostiako Bigarren ingurabideko lanak bukatu eta N-1ean, Irungo norabidean Oztaran auzotik Zabaletako tunelera pantaila akustikorik ez zegoela baieztatu ostean, eremu horretako auzotarrek Udalean eta Aldundian ezarritako salaketan ondorioa da iragarpena.

Bi erakundeen jarrera ona jaso dute auzotarrek eta Aldundiak azterketak egin ostean, pantailak jartzeko proiektu osagarria martxan jarriko duela adierazi du. •

Egunero

**Erakusketa**

GOIZANE MENDIZABALEN argazkiak izango dira ikusgai. Egile honen argazkiek inguruko herritako paisaiak eta txokoak islatzen dituzte. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.



Asteartea, 14

**Hitzaldia**

ESKOLA/FAMILIA INTERAKZIOA hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

GAZTELANIAZ.



Jalgiko jam sesioko gonbidatua  
Azkaiter Pexox Band taldea izango da

Hil honetako jam sesioko talde gonbidatua Azkaiter Pexox Band izango da. Batez ere Rocka eta Bluesa jorratzen du talde honek eta kaleratu berria du *Zuzenean* diska. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan.

OSTIRALEAN, HILAREN 10EAN  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN  
EUSKARAZ

Ostirala, 24

**Kontzertua**

BUFFALO taldearen emanaldia. Taldea David Gorospek (baterian) Ander Ederrak (gitarrian) eta Joanes Ederrak (baxuan) osatzen dute. Talde instrumental honek jazz rocka egiten dutela esan daiteke. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan, EUSKARAZ.



Larunbata, 25

**Azoka**

STOCK ETA SALDOEN III. AZOKA antolatu du Aterpea merkatarri-elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin irailaren 25 eta 26an. Michelingo Udal Kirolguneko pilotalekuan, 10:00etaik 20:00etara.



Ama  
Guadalupe  
Extremadura  
etxeko jaiak

EKITALDI ETA EMANALDI GUZTIAK EXTREMADURA ETXEAN BERTAN EDO UZTURRE PLAZAN IZANGO DIRA.

Ostirala, 10

**21:00etan**

Ikurrinaren igoera.

**21:30etan**

Herri afaria Extremadura-ko etxean.

**23:00etan**

Franquete eta Felisa, umorea eta koplak.

Larunbata, 11

**11:00etan**

Marrazki lehiaketa

**12:00etan**

Haur jolasak

**15:00etan**

Mus txapelketa irekia

**18:00etan**

Flor de Tomillo, Extremadurako kultur taldearen dantza eta koruak, Ermuakoak.

**21:30etan**

Bazkide eta lagunkideen afaria.

**00:00etan**

Ibai berriak taldearekin dantzaldia Uzturre plazan.

**03:00etan**

Ogi-apurak banatuko dira

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea

Geltoki kalea 18

Telefonoa: 943 376181



**Oharrak**

**Margo eta marrazki eskola**

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastarotako izen-ematea irailaren 6, 7 eta 8an egingo da, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12 behean duten egoitzan.

**Kiroldegiko neguko ordutegia**

Irailatik aurrera herriko kirol guneen ordutegia honako hau izango da. Kiroldegia, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:30era egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara; igande eta jaiegunetan berriz, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00etatik 12:30etara eta 14:00etatik 21:30etara, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, igande eta jaiegunetan berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo kirol gunea, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 22:00etara irekiko da, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara, igande eta jaiegunetan berriz, 9:00etatik 13:00etara.

**Dantza egin nahi dutenentzat**

Dantza egitea gustuko dutenek aukera bikaina dute horretarako Zumaburuko eskolen azpialdean dauden lokaletan. Bost urtetik gorakoak hartuko dira eta informazioa edo izena eman nahi izanez gero, hurbildu bertara gaurtik hasi eta osteguna bitartean, hau da, irailaren 9ra bitartean arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

**Udako Txokotako argazkiak urrian**

Udara honetan, uztaila eta abuztuaren, Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako txokotan egondako haurren argaz-

kiak jasotzen dituzten CDak eskuragarri egongo dira urriatik aurrera Amarrun ludotekan (Ola kalea 1). Argazkien CDA jasotzeko ordutegia honakoa da 17:00etatik 20:00etara.

**Galdutako gauzak**

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta eta Shiroko markako motozikleta kaskoa.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horretarako jo udaltzainen bulegora 09:00etatik 13:00etara. •

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal proposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Igandea, 12

**11:30etan**

Meza Zumaburuko Arantzuko Ama elizan Ecos de Extremadura, taldearen koruek lagundirik.

**13:00etan**

Semblante Andaluz etxeko Zambra taldearen emanaldia

**14:30etan**

Herri bazkaria

**16:30etan**

Tute txapelketa irekia

**18:00etan**

Bolo txapelketa emakumezkoentzat eta toka txapelketa gizonezkoentzat.

**19:30etan**

Ekitaldietako irabazleei sari banaketa

**20:00etan**

Jaien amaiera eta ikurrinaren jaitziera.

# Olioa biltzeko edukiontziak jarri dira

- Sukaldean erabilitako olioa jasotzeko bederatzi ontzi laranja banatu dira Lasarte-Oriako toki ezberdinetan
- Plastikozko ontzietan ondo itxita bota behar da olioa
- Asteazkenetan merkatuko postuan ere jasoko da olioa, zerbitzu hau ez da kenduko

Edukiontzi laranja jarri dira Lasarte-Oriako bederatzi tokitan erabilitako olioa jasotzeko. Sanmarko Mankomunitateak bultzatuta, Udalak, birziklapenaren aldeko beste pausu bat eman eta herritarrei deia luzatu die ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta sortutako hondakinak bereizteko. Bi mila biztanleko edukiontzi berezi hauetako bat jarri da, guztira bederatzi udalerrira osoan. Dena den, merkatuan asteazkenetara ere bilduko da erabilitako olioak.

Lasarte-Oriako bederatzi lekutan jarri da edukiontzi laranja. Atsotakar-eko biribilgunean, Antxota Kalean, Buruntza kalean, Geltoki kalean Kultur etxe parean, Hipodromo Etorbidean, Kale Nagusia Zaharren Etxean, Loidi Kaleko 16-17an, Oztaran-eko biribilgunean eta Basaundi Bailara kaleko 7an. Mankomunitateak Errenteria, Pasaia, Lezo, Astigarraga, eta Urnietan ere jarri ditu.

Olioak botatzeko soilik plastikozko botilak erabiltzeko eta olio ez betetako plastikozko ontziak ondo itxeko eskatu dute Udaleko Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Departamentuko ordezkariak. Herritarrei iraunkortasunaren alde egiteko eta apustu hori indartzeko eskatzen die Udalak, batetik hondakinak bereiziz eta bestalde ahal den neurrian hondakinak sorrera txikiagotuz.

Horretarako, sei edukiontzi ezberdin daude momentuz Lasarte-Orian. Zaborra bota-

tzeko berdez gain, papera, bidria eta plastikoa botatzeko edukiontziak, pilak botatzeko edukiontzi berezi horiak eta jarri berriak diren olio biltzeko edukiontzi laranja. Hauek jartzeko orduan erabili duten irizpidea herritarrengandik ahalik eta hurbilen eta herritarren zentzuzkoan jarri dira.

## Olio oso kutsakorra

Sukaldeko arraskatik edo komuneko zuloatik botatzen den olio apurak milaka litro ur kutsatzen ditu, ibai eta itsasoa. Eta erraz konpondu daiteke arazo hori. Sukaldean erabilitako olioak, plastikozko ontzietan jaso behar dute lasarteoriatarrek, ontzia ondo itxi eta edukiontzi laranja hauetara bota behar da asteazkenetako merkatuan San Markos-eko mankomunitateak jartzen duen furgonetara eramanez. Gero olioak biodieselak egiteko erabiliko dira.

Merkatuko bilketa zerbitzua ez da kenduko eta orain arte



Edukiontzi laranja bota behar da olioak, ondo itxita plastikozko botila barruan.

bezala jasoko dira hondakin bereziak asteazken goizetan, besteak beste, olioak, pinturak, bonbillak, etxeko tresna txikiak, erradiografiak, telefono mugikorak, pilak, informatikako eta argazkilaritzako materialak, CDak, tonerak eta bideoak...

Hondakin bereziak biltzeko zerbitzu hau asteazkenetan merkatuan eta hileko azken larunbatean Urbil merkatalgunean eskaintzen da. Zehatz-mehatz hileko 1., 2., 3., eta azken asteazkenetan 9:00-13:00 bitartean merkatuan; eta hileko 4. larunbatean eta bost larunbateko hilabetetan, 5. ere bai 11:00-14:00 eta 15:00-19:00 bitartean Urbil-en. •

## Merkatuan biltzen diren hondakin zerrenda

- San Markos-eko furgonetan merkatuan eta Urbilen utzi daitezkeen hondakinak honakoak dira :
- Sukaldeko olioak
- Pintura, bernizak, disolbatzaileak, kolak...
- Bonbilla halogenoak eta kontsumo baxukoak, fluoreszenteak
- Etxetresna elektriko txikiak
- Telefono mugikorak
- Garbiketarako produktu kimikoak
- Termometroak

- Informatikako materiala
- Pilak eta bateriak
- Aerosol toxikoak: intsektizidak, lakak...
- Auto-olioak, bateriak, irragazkiak, izotz-kontrakoak...
- Kamerak eta argazkilaritza-materiala
- Erradiografiak
- Herbizidak eta intsektizidak
- Inprimagailuetako kartutxoak eta tonerak
- Jostailu elektrikoak eta elektronikoak
- CDak, DVDak, bideoak...

## MATRIKULA ZABALIK UDAL EUSKALTEGIAN

Euskara ikasteko bide zuzena

[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

### ESKAINITZA ZABALA

- Euskalduntzea eta alfabetatzeko maila guztiak
- Tutoretza eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko plangintza
- Auto-ikaskuntza

### AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Hizkun eskakizunak eta HABEren 1., 2. eta 3. mailak (EGA).
- Titulu homologatuak

### ERABILERA BULTZATZEKO EKINTZAK

- **Solaskide:** herriko euskaldunekin mintza praktika egiteko.



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia  
Bekokale bidea, 1  
20.160 LASARTE-ORIA  
Tf: 943 36 16 21

[www.lasarte-oria.org/eu/html/25/348.shtml](http://www.lasarte-oria.org/eu/html/25/348.shtml)  
[euskaltegia@lasarte-oria.org](mailto:euskaltegia@lasarte-oria.org)



**Matrikulazioa: irailaren 17ra arte // Bulego orduak: 08:30 – 19:15**